

AU ERE MENDIZALETASUNA DA

Amaika inbidi ematen didate mendiz-mendi dabiltzanak! Mendian jaio gera eta mendian nai degu bizi. Euskalduna beti izandu da mendizale ona. Gure erriak beroiek ez al daude ba mendi zuloan? Mendiaren maldan? Ori dala ta, kale extuan bizi geranoi sortzen al zaigu alako mendi gosea!

Nor ez lituke munduan diran mendi garaienak bere ankakin zapaldu nai? Eztet uste ala ere, mendizale izateko tontorrik-tontor ibilli bear danik. Geienetan ezin bai diteke gañera! Pintura zale batek maitte lezake biziki asko kolorea, eta pinturaki bat ere pintatu ez! Maite du pinturea eta ala ere eztu arterik eta antzerik koadro on bat egiteko. Neri ere olakoxe zerbait gertatzen zait mendiarekin: mendiz-mendi ibilli nai ba, eta ala ere... kale txuloan egon bear au!

Nik eztakit, bañan... badegu ia denok mendian ibiltzeko gogoia. Gure baserritarak zenbat pauso eman ote dute mendien zear! Marka ederrak egin ere bai! Ba nuan aittona bat! Sendoa, aurpegi zabal, dena begi. Ari emango zionik gutxi zan bazterretan. Goizean Zaldibi-n, eguerdirako Beizama-ko punttan zegokean. Dena oñez. Irurogeiren bat urte bide zituen da, Arantzazu-ra joan bear zuala. Esan da egiñ. Artu makilla eta an doa Billafranka barrena Legazpi aldera. Katabera gero. Arantzazu. Agur Mari batzu errezatu Amaren aurrean da, Azpeiti aldean bazuela egiteko zerbait, eta jo zak San Iñazio-ren errira! Bai iritxi ere! Etzan bere galtzetan lasai egoteko egiña eta Zaldibi-ra bear zuala gaua baño len. Eta gaueko amaiketarako Zaldibi-n zan. Zaldibi-Arantzazu-Azpeiti-Zaldibi. Ezta marka txikia.

San Iñaziok berberak ere! Erdi gaixo, erdi sendaturik zegoelarik, errenka, anka bat bestea baño aundiago, an doa Arantzazura; andik Barzelonara. Dena oñez.

Pralle batzu ere ezagutu ditut, mendizale porrokatuak. Eskean da ibiltzen oittu xamarrek edo daude ta, alde batera ezta batera arritzeko egun batean olako txangoa egitea. San Miela joan bear zutela ba gure pralleok. Tolosa-tik San Miela! Ollarrak kukurrukua jo baño len or doa Alegri-tik barrena Amezketaruntz. Amabi kilometro. Andik Igaratza-ra. Igaratza-tik San Mielea. Eta berriro etxera. Egun berean eta bide berdiñetik. Ain xuxen ere, Eduardo Mokoroa jauna musiko zanarekin arkittu ziran San Migelen. Etorri eta urrengo egunean, bakaziotan zeudela eta, Leaburu-ra joan bear zutela. Atera dira, eta bidean Eduardo jaunarekin egin zuten topo.

—Ka xo mutikoak! Leaburu aldeti?

—Ala gendun asmo.

—Atzo San Migelen izan ziñatenak etzerate ba?

—Bai, alaxen da, bañan ala ere buru-zut goaz aldapa gora.

—Ai, ai! —erantzun zien musikoak—. Ankak ariñak izango dituzue, bañan, burua ariñago!

Arrokeriz egin ditezkeala? Ba-diteke. Ez nago ala ere ortan. Paisajeak tiratzen gaittu. Ikusiz eta ibilliz sortzen zaigu nunbait paisajearen gosea. Gauz berriak, argi berriak ikusi nai ditugu, eta ustekabean ain egitengera paisajista, edozein paisaje zakarrak ere alako zurrara bat sortzen baitigu biotzondoan. Kastillako paisaje zakarrak gurearen antzik ez-uelarik, eder zaio alaz guziz ere irudimenari! Unamuno bat, Salamanka-ko lurraldeen zalia omen zan. Zuloagak ba-zun alako joera bat Segovia aldeko lurraldeetara. Sahara desiertoak txoratzen aal zuan Psichari soldadua.

Leen esan bezela, eztago mendiz-mendi ibilli bearrik mendi zale izateko. Tontorrik-tontor esan nai nuke, alegia. Mendi gallurretik geiago ikusi ditekeala! Alaxen da, bañan mendiaren maldan ere ba-dago naiko argi gure begiok asetzeko. Nere aittona ez bide zan ibilli Pirineos-etan, eta ala ere...

L. G.